

# HILDA?

Duela hamar urte Erresuma Batura joan nintzen bizitzera, nire gurasoei enpresa internazional aberats batean lan oso ona proposatu zietelako, eta beraiek baietz esan zutelako. Etxera joan nintzen eta maleta prestatu nuen, hurrengo egunean joan behar ginelako. Bilboko aireportura ailegatzean, gure hegaldia atzeratu egin zela jakin genuen. Gauera arte itxoin genuen bertan, oso asperturik. Azkenean, hainbat ordu eta gero, hegazkinera igo ginen eta oso nekatuta nengoenez, bidaia osoa lotan egin nuen.

Gure etxe berrira ailegatu ginenean harrিতuta geratu nintzen, etxe oso handia baina oso zaharra baitzen. Adreiluz egina zegoen, baina oso gastatuta zeuden. Gero etxera sartu ginen eta barrutik ere zaharra zen, baina ederra iruditu zitzaidan. Lehenengo asteak oso aspergarriak izan ziren, eguna gauzak bere tokian jartzen pasatzen genuen eta ez nintzen etxetik ia ateratzen. Batzuetan hirira joaten nintzen, buelta bat ematera. Gero etxeko lorategian irakurtzen aritzen nintzen, eta azkenean nire gelara igotzen nintzen mugikorrarekin.

Institutoko lehenengo eguna iritsi zen. Ordua baino lehen autobus geltokira joan nintzen eta institutorantz abiatu nintzen. Oso handia zen eta galdu egiten nintzen. Bat-batean, mutiko batekin talka egin nuen eta nire klasea non zegoen galdetu nion, eta kasualitatez, bera ere nire taldekoa zen. Orduan, elkarrekin joan ginen. Klase luze eta aspergarri baten ostean patiora atera ginen. Bakarrik egongo nintzela uste nuen, baina lehenago ezagutu nuen mutilak berarekin eta bere lagunekin joateko esan zidan. Oso gustora egon nintzen eta lagun berri asko egin nituen.

Egun horretan, gauean, afaldu ondoren lotara joan nintzen eta goizeko ordu bietan ahots beldurgarri bat entzun nuen *“Encuentra las llaves”* esaten zuena. Azkenean isildu egin zen eta nik lo egitea lortu nuen. Hurrengo egunean, larunbatean, klaserik ez zegoenez, ahots horrek esan zidana egin nuen, giltza horiek bilatzen hasi. Goiz eta arratsalde osoa aritu nintzen bilaketa lanetan, eta azkenean koadro bateko markoan bat aurkitu nituen. Burmuin bat zeukaten marraztuta. Nire anaia nagusiaren bila joan nintzen eta zer aurkitu nuen kontatu nion, eta bat-batean beste aldera begiratu zuen bere lepoan giltza sartzeko zulo bat agerian utziz. Orduan, giltza hor sartzearabaki nuen. Giltzari buelta bat eman nion eta nire anaia geldirik geratu zen. Halako batean, ate handi bat agertu zen.

Ate horretaraino hurbildu nintzen eta sartzearabaki nuen. Barruan nire anaia aurkitu nuen eta bere buru barruan geundela azaldu zidan. Ate gehiago zeuden eta horietako bakoitza oroitzapen bat zen. Hor konturatu nintzen giltzak magikoak zirela. Horrela, tarte luze batean egon ginen ate ezberdinetan sartu eta oroitzapenak ikusten. Azkenean atera egin ginen, giltza anaiaren lepotik atera nuen eta lotara joan ginen.

Hurrengo egunean giltza gehiago bilatzera joan nintzen, nire etxe ondoan zegoen putzu batera. Bat-batean norbaitek putzu barrura bultzatu ninduen, eta hartu nuen kolpea handia izan zenez, zorabiatu egin nintzen. Esnatzean giltza bat aurkitu nuen ondoan, ate bat marraztuta zuena. Putzuan ate bat zegoen, orduan giltza sartu nuen. Atea irekitzean mendi bat ikusi nuen, berriz ireki eta hondartza bat ikusi nuen. Azkenik, berriz ireki eta nire etxea aurkitu nuen; hor konturatu nintzen giltza horrek nahi nuen tokira eramango ninduela.

Geroago nire anaiarekin elkartu nintzen eta berak ere giltza bat aurkitu zuela esan zidan, baina ez zekiela nola erabili. Eskeleto bat zuen marraztuta; orduan, eskeleto txiki bat marraztua zuen ate bat ikusi nuen. Giltza sartu eta atearen beste aldera pasatu nintzen. Ustekabean mamu bihurtu nintzen. Oso pozik nengoen eta nire anaia begiratu nuen, baina espero ez nuen zerbait esan zidan. Nazka aurpegiarekin begiratu ninduen eta *'Yo no soy tu hermano'* esanda, ate itxi zuen. Ezingo nintzen berriz pertsona bilakatu, eta konturatu nintzen horrela geratuko nintzela betirako.